

2023KO HERRI ALDIZKARIA



AUZAPEZAREN HITZA

Izturiztar maiteak,

Herri barnearen berrantolatze eta Harpe Alde kiroldegiaren arraberritze lanen abiatzeko beharrezkoak ziren azterketa osagarriak egin ahal izan genituen, iaz, 2023an.

Aurten, 2024an, zenbait urte iraunen duten obra handiak hasiko dira.

Laugarren urte laurdenean hasiko da herri barnearen berrantolatze lanen lehen tarte, elizako aparkalekuaren arramoldatzearekin. Elizako aparkaleku horretan, antolatuko dira eskolako eta linea erregularren autobus geldilekua, hondakinen biltzeko edukiontzi erdi lurperatuak eta ondoko lursailean aparkalekuaren handitzeko lehen lanak. Lanen lehen tarte honetaz baliatuko gara mugikortasun urriko jendeendako hilerria sartzeko bidearen helgarritasunaren hobetzeko. Aldi berean, Herriko Etxetik Arlandearaino aireko sareen (tentsio apaleko sareen eta telekomunikazioko sareen) lurperatzeko lanei esker, egiten ahalko dira herriko sartzearren arramoldatzeko beharrezkoak diren bideen antolamenduak (oinbidea, argiteria publikoa, bide konkorrak).

Herriko Etxeak herriko bideen arranjatzeko obra handiak egingen ditu ere. Hala, Oihanburua, Ejiptoia eta Agerrebordako bideak oso-osorik arrimatuko dira aurten.

2023an, lokal berrien beharrak ase nahi izan genituen, bertzeak bertze, Arberoan Alaiki aisialdi zentroari bulego baten eta pausa-gela baten eskaintzeko eskola oporretan hartu langileendako eta lokal baten eskaintzeko Besta Komiteko gazteendako. Antolatze lanak egiten ari gara ihiztarien lehengo lokalean, eta udaren hastapenean bururatuko dira.

ELENA baliabideak Harpe Alde kiroldegian egin diagnostiko energetiko eta termikoaren azterketek konfirmatu zuten arraberritze lanak egin behar direla. Araudiak behartzen ditu herriak 2030eko eraikin publikoen energia-kontsumoa % 30 eta 50 artean murriztera. Horren ondorioz, Tokiko Kudeaketarako Agentzia Publikoaren zerbitzuei hel egin berri diegu, obra horien egiteko beharrezkoak diren alderdi teknikoetan eta dirulaguntzen xerkatzean lagun gaitzan.

Azterketa horiek, halaber, erranen dute ea baliagarri izan daitekeen kiroldegiaren teilatuan panel fotovoltaiakoen ezartzea. Helburua da argindarra lekuan berean ekoitzi eta kontsumitu ahal izatea, eta, SCIC EKINDAR enpresarekin lankidetzan, autokontsumo-sare kolektibo baten sortzea, epe luzera, elektrizitate-prezio kontrolatuez baliatu ahal izateko.

Aitzinetik, 1983koa den trinketeko teilatu zaharra laster arraberrituko da, ur-infiltrazio anitzen tratatzeko eta pilotariak baldintzarik hoberenetan aritzeko.

Tokiko Lur-Funtsen Erakunde Publikoaren (EPFL delakoaren) zerbitzuekin eratu lur-funtsen estrategiaren parte gisa, Herriko Etxeak deliberatu zuen Hirigoinia etxearen erostea. Herri barnean kokatua denez, etorkizunean izanen duen erabilpena elkarrekin definitzen ahalko dugu. Erabilpena hibridoa izanen da, eta izturiztarrei elkarretaratzeko tokia eskainiko die.

Bururatzeko, azpimarratu nahi nuen laborantza munduarekin egin dugun elkarlana, Zabartzeko bordako sektorean herriko larreak berreskuratu eta balorizatzeko proiektuaren inguruan. Lehen ekimenak abian dira; izan ere, primadera honetatik, behiak, ardiak eta zaldiak ezarri dira, kasik 20 hektareako eremu horretan.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet axuant eta kontseilari guziei beren parte hartze aktiboagatik. Eskerrak ere herri aldizkari hau idazten parte hartu dutenei eta gure herriko elkarteen ordezkari.

Arta har ezazue zuen buruaz eta hurbilekoez.

Frédéric CAMOU

Herriko Kontseiluko hautetsiak

2023-KO HERRIAREN KONTU ADMINISTRATIBOAK

2022ko soberakin orokorra: 1.111.559,14 €

FUNTZIONAMENDUA

FUNTZIONAMENDU GASTUAK		
kap.		2023an eginak
011	Izaera orokorreko gastuak	88.101,57
012	Langile-gastuak	239.911,19
65	Ohiko kudeaketarekin zerikusia duten bestelako gastuak	120.395,03
66	Finantza-gastuak	11.313,48
67	Ohiz kanpoko gastuak	4.311,39
042	Sekzioen arteko lekualdaketari dagozkion eragiketak	7.467,74
GASTUAK OROTARA		471.500,40

FUNTZIONAMENDU SARTZEAK		
kap.		2023an eginak
70	Zerbitzuen, jabegoen eta salmenten etekinak	169.979,85
73	Zergak (haietan, tokiko zergak*)	207.756,93
74	Diru-zuzkidurak, dirulaguntzak eta parte-hartzeak	91.410,19
75	Ohiko kudeaketarekin zerikusia duten bestelako etekinak	66.098,10
76	Finantza-etekinak	11,33
77	Ohiz kanpoko etekinak	2.464,00
013	Gastuen arintzeak	10.497,20
042	Sekzioen arteko lekualdaketari dagozkion eragiketak	1.200,00
SARTZEAK OROTARA		549.417,60

INBERTSIOAK

INBERTSIO GASTUAK		
kap.		2023an eginak
16	Maileguak eta dagozkien zorrak	43.848,86
204	Ekipamendurako dirulaguntza ordainduak	23.119,60
Eragiketez kanpoko gastu errealak		66.968,46
	Bide obrak	31.010,10
	Materialaren erosketa	19.543,61
	Herriko eraikinak	18.884,78
	Herri barnearen berrantolaketa	35.237,01
	Elkarteen lokala	27.140,42
Eragiketen gastu errealak		131.815,92
040	Sekzioen arteko lekualdaketari dagozkion eragiketak	1.200,00
041	Ondare-eragiketak	14.076,19
GASTUAK OROTARA		214.060,57

INBERTSIO SARTZEAK		
kap.		2023an eginak
10	Diru-zuzkidurak, orotariko funtsak eta erresalbuak	9.617,85
Eragiketez kanpoko sartze errealak		9.617,85
	Bide obrak	16.933,68
	Herri barnearen berrantolaketa	13.322,00
Eragiketen sartze errealak		30.255,68
040	Sekzioen arteko lekualdaketari dagozkion eragiketak	7.467,74
041	Ondare-eragiketak	14.076,19
SARTZEAK OROTARA		61.417,46

Etxe-multzoko aurrekontuaren ezeztatzea, 2023/04an: 18.209,01 €

2023ko emaitza orokorra: 1.055.042,24 €

*Tokiko zergak

Zergak	2022ko tasa	2023ko tasa	2023ko oinarria	2023ko emaitza
Bigarren bizitegien gaineko bizitegi-zerga	% 10,66	% 11,29	67.866	7.662 €
Jabego Eraikien gaineko Lur-Zerga (JELZ)	% 21,62	% 23,12	346.208	80.266 €
Eraiki Gabeko Jabegoen gaineko Lur-Zerga (EGJLZ)	% 39,39	% 39,39	32.418	12.769 €
Zergen emaitza orotara				100.697 €

BIZITEGI HUTSEN GAINEKO BIZITEGI-ZERGA

Bizitegi-politikaren parte gisa eta gaur egungo lur-funtsen urritasunaren testuinguruan, Euskal Hirigune Elkargoak ahalik eta tresna gehien mobilizatu nahi ditu gaur egun aski erabiliak ez diren bizitegiak merkatura itzultzeko. Tresna horien artean, Zergen Kode Orokorra ahala ematen die udalerriei Bizitegi Hutsen gaineko Bizitegi-Zerga plantan ezartzeko. Neurri fiskal honen xedea da bizitegi-zergaren arabera zergapekoak izatea urteko urtarilaren 1ean bi urte baino gehiagotik hutsak diren bizitegiak.

2023ko buruilaren 5ean egin bilkuran, Izturitzeko Herriko Kontseiluak deliberatu zuen Bizitegi Hutsen gaineko Bizitegi-Zergaren plantan ezartzea 2024ko urtarilaren 1etik goiti, Bizitegi-Zergaren arabera zergapekoak izan daitezen bigarren bizitegiak eta bizitegi nagusirako ez diren bestelako lokal mublaturak. Gure herriko Bigarren bizitegien gaineko bizitegi-zergaren tasa % 11,29koa da.

Ohartarazten da, orduetik, Herriko Etxea zerbitzu fiskalekin jarri dela harremanetan, Izturitzeko bizitegi hutsen zerrendaren erregularizatzeko. Hala ere, zure egoera egiazta ezazu, otoi; eta, beharrez, egunera ezazu, zerbitzu fiskalekin harremanetan jarritz.

2024-KO HERRIKO TOKIKO ZERGA TASEN BOZKATZEA

Urte guzietan bezala, tokiko zergen tasak eztabaidatu eta onartu behar dira. 2024. urterako, Herriko Kontseiluak deliberatu zuen ez emendatzea Jabego Eraikien gaineko Lur-Zerga (JELZ), ez eta ere Eraiki Gabeko Jabegoen gaineko Lur-Zerga (EGJLZ).

Aldiz, 2024ko Finantzen Legearen emendatze bereziko salbuespenezko baliabide berriak baimentzen duen bezala (151. artikulua), deliberatu zen Bigarren bizitegien gaineko bizitegi-zergaren tasa % 0,839 emendatzea, zeina bigarren bizitegiei, bizitegi nagusirako ez diren bestelako lokal mublaturak eta bi urte baino gehiagotik hutsak diren bizitegiei baitagokio (ikus gorago).

Zergak	2023ko tasa	2024ko
Bigarren bizitegien gaineko bizitegi-zerga	% 11,29	% 12,12
Jabego Eraikien gaineko Lur-Zerga (JELZ)	% 23,12	% 23,12
Eraiki Gabeko Jabegoen gaineko Lur-Zerga (EGJLZ)	% 39,39	% 39,39

EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAREN 2024-KO ZERGEN TASEN BOZKETA

2024ko martxoaren 23ko Elkargoko Kontseiluan, kontseilarien % 58,55ak tokiko zergak emendatzearen alde bozkatu zuen: aldeko 113 boz, kontrako 80 eta 18 abstentzio.

Hemendik aitzina, tasa hauek aplikatuko dira:

- Jabego Eraikien gaineko Lur-Zerga (JELZ): % 2,79tik % 2,93ra (+ % 5,02)
- Eraiki Gabeko Jabegoen gaineko Lur-Zerga (EGJLZ): % 3,87tik % 4,06ra (+ % 5,00)
- Bigarren bizitegien gaineko bizitegi-zerga: % 8,94tik % 9,39ra (+ % 5,03)
- Enpresen Lur-Funtsen gaineko Kotizazioa: % 28,06tik % 29,91ra (+ % 6,59)

Gainerako zergak ez dira aldatzen:

- Etxe-Hondakinen Biltze-Zerga (EHBZ): % 10,70

eta 5 milioi euroko UIKUP zergaren emaitza (Ur-Inguruneen Kudeaketa eta Uholdeen Prebentzioa).

Tasa horiek guziaz zerga agiriaren "herriartekoa" zutabean agertzen dira.

2023-ko HERRIKO ETXKO DIRULAGUNTZAK

<i>Ikastetxeak</i>	
Ezkia Hazparneko ikastola	1.120
Arberoa ikastola	7.840
<i>Ikasleen Burasoen Elkarteak</i>	
Ezkia Hazparneko ikastola	50
Arberoa ikastola aitzina	350
Elhuyarreko ikasleen burasoen kontseilua	275
Ursuya	75
<i>Herriko elkarteak</i>	
Abarratia	400
Artetxea	400
Arberoako joaldunak	300
Goratik	400
<i>Herriko elkarteak (ezohiko dirulaguntzak)</i>	
Artetxea	400
Besta komitea	400
<i>Bertze elkarteak...</i>	
Haur eriei irakastearen aldeko elkarteak (AEEM)	200
Jauzika elkarteak	100
Gurutze Gorria	50
Euskal Konfederazioa	50
Euskaltzaindia	50
Euskal Moneta	50
Hemen elkarteak	100
Herria kazeta	100
Integrazio Batzordea	400
Irulegiko Irratia	200
Izpindar	50
Kanaldude	100
Lurzaindia	100
Mediabask	100
Euskal Herriko organoak (Orgue du pays basque)	100
Bihotz Ostatuak	200
Sokorri Katolikoa	50
S.O.S. Laborari	150
DIRULAGUNTZAK OROTARA	14.160

2023-KO OBRAK ETA BIDE OBRAK

Epaitze lanak, urtean bi aldiz (ekainean eta urrian).

Lur berdintze eta harriztatze lanak herriko bideetan:

- UHALDEKO KARRIKAN: arroilaren garbitzea, lurraren kentzea, harriztatzea eta bazterren betoiztatzea.

- AGUERREBORDA bidean: lur berdintzea, zelaitzea, hodian pasatzea, lurraren kentzea, legar xeeheko bi geruzen ezartzea.

OROTARA (ZERGAK BARNE): 37.781,22 €

Sortzeak

- MORALES DOYLE Charlie, 2023ko martxoaren 18a sortua, LES CHENES etxea
- LUCAS SALLABERRY Rose, 2023ko apirilaren 12a sortua, IZARREN ONDOAN etxea
- HARAMBOURE Émilie, 2023ko maiatzaren 11 sortua, ETXEBEHERIA etxea
- DARRAILLANS Leia, Fabienne, Alexandra, 2023ko azaroaren 15a sortua

Goresmenak ematen dizkiegu familia guztiei.

Heriotzak

- AGUERREBERE José, Maria, 2023ko abenduaren 28a zendua, Pausa Lekuan
- ANSORENA Marguerite, 2023ko otsailaren 7a zendua, Pausa Lekuan
- BEHOTEGUY Patrick, 2023ko agorrilaren 26a zendua, Pausa Lekuan
- BERNES Jean, Prosper, 2023ko abenduaren 27a zendua, Pausa Lekuan
- BIDART Marthe, 2023ko urtarrilaren 11 zendua, Pausa Lekuan
- DUGUINE Anne-Marie Née BORDALECOU, 2023ko agorrilaren 31 zendua, AGUR etxean
- CARRE Gisèle, Yolande, 2023ko martxoaren 9a zendua, Pausa Lekuan
- CARRERE Anna, 2023ko martxoaren 21a zendua, Pausa Lekuan
- DIRIART Marie, Anne, 2023ko ekainaren 22a zendua, Pausa Lekuan
- DULUC Liliane, Nicole, 2023ko otsailaren 27a zendua, Pausa Lekuan
- ETCHART Jean-Michel, 2023ko azaroaren 18a zendua, ATERBEA etxean
- ETCHEVERRY Yves, Valentin, 2023ko maiatzaren 25a zendua, JOANATEA etxean
- ETCHEVERRY Catherine, 2023ko irailaren 25a zendua, Pausa Lekuan
- FOURASTIER Pierre, Lucien, Christian, 2023ko ekainaren 2a zendua, Pausa Lekuan
- GARAT Marie, Thérèse, 2023ko urtarrilaren 7a zendua, Pausa Lekuan
- GARCIE Huguette, Louise, 2023ko ekainaren 28a zendua, Pausa Lekuan
- JOCOU Marie, Denise, 2023ko otsailaren 1a zendua, Pausa Lekuan
- LACROIX Augustine, 2023ko azaroaren 28a zendua, Pausa Lekuan
- LAFFITTE Salvat, 2023ko otsailaren 11 zendua, Pausa Lekuan
- MOUSSEAU Albert, 2023ko otsailaren 6a zendua, Pausa Lekuan
- NOMBRAY Simone, Paulette, 2023ko apirilaren 18a zendua, Pausa Lekuan
- POMMIER Serge, Francis, 2023ko otsailaren 23a zendua, Pausa Lekuan
- SALDIBOURE Marie, Jeanne, 2023ko abenduaren 22a zendua, Pausa Lekuan
- SALLABERRY Pierre, 2023ko ekainaren 11 zendua, Pausa Lekuan
- SAPHORE Josette, 2023ko abenduaren 27a zendua, Pausa Lekuan
- SORCABURU Marie, Angèle, 2023ko azaroaren 29a zendua, Pausa Lekuan
- VOISIN Jeannine, Françoise, Germaine, 2023ko ekainaren 8a zendua, Pausa Lekuan

Gure doluminik bizienak desagertze hauetaz hunkituak diren familia guztiei.

ERAIKITZEKO BAIMENAK – ANTOLATZEKO BAIMENAK

Eraikitze baimenak

EYHERACHAHARIA: Laborantzako eraikin baten handitzea + Panel fotovoltaikoak.

GALARDI jaun-andereak: T3 motako bi bizitegi barne hartuko dituen etxe baten eraikitzea.

DAVID HARVEY jauna: Etxe baten eraikitzea.

HELIN PRESCILLIA anderea: Sartzeko atearen gainaldean den leiho baten kentzea.

Aitzinetikako galdeak

Laurent SALLABERRY: Baratzeko lokal bat bizitegi bilakatzea

Éric MERIGUET: Panel fotovoltaikoak

GNS CONSEILS: Panel fotovoltaikoak

Anne Carole BOUTHORS: Igerilekua

Nicolas LAFITTE: Hesiak + xeila

Éric RICHARD – ENEDIS: Transformadore baten ezartzea

Cédric DARRIEUMERLOU: Panel fotovoltaikoak

Pierre CHARRITON: Panel fotovoltaikoak

Agnès DELHOVE: Igerilekua

Stéphane ITHURBURU: Panel fotovoltaikoak

Jean-Éric HOUAREAU: Panel fotovoltaikoak

Daniel ETCHEVERRY: Panel fotovoltaikoak



Obren Bururapena eta Araberakotasuna Segurtatzen duen Deklarazioa

Obren aitzinetikako deklarazio eta Eraikitze baimen oro (eraikitzea, arraberritzea, handitzea, aitzinaldearen aldatzea, etab.) hirigintza-erabaki baten xede izan bada, deklaraturako obren araberrakotasuna egiaztatu beharko da.

2022ko bigarren urte laurdenetik, herriak Euskal Hirigune Elkargoko zinpeko langile bati eska diezaioke kontrol horiek egiteko eta, beharrez, hirigintzako kodearen arau-hausteen agiria egiteko.

Oroitarazten da galdegile guziek bi dokumentu aurkeztu behar dituztela; hastapenean, Obrak hastearen deklarazioa eta, bukaeran, Obren Bururapena eta Araberrakotasuna Segurtatzen duen Deklarazioa.

Obren aitzinetikako deklarazioa edota Eraikitze baimena aurkezteari buruzko edozein galderaren egiteko, jar zaitez harremanetan Herriko Etxearekin, zure eskaera Hazparnealdeko hTHPen araudiarekin bateragarria dela bermatzeko.



ARBEROAN ALAIKI AISIALDI ZENTROA

Arberoan Alaiki aisialdi zentro elebidunak hura kudeatzen duten lau herrietako familien zinezko beharrari erantzuten dio.

Iazko udan, 80 familiak erabili zuten zerbitzua; hots, uztailaren 11tik agorrilaren 19ra, astelehenetik ortziratera, 07:30etik 18:00etara, Izturitzeko Le Petit Prince eskolan, 3 eta 13 urte arteko 116 hurrek. Hauek osatzen zuten langileen taldea: ZIGA diplomadun Carmen CARCELLER zuzendariak eta AIGA diplomadun zazpi animatzailek –Maika HAICAGUERRE, Elorri LANDABURU, Leire SUZANNE, Uxue ELOSEGI MARTINON, Elodie AURCAZAN eta Inès MOUSTIRATSek–.

Zenbait astez hedabideen gaia landu zuten hurrekin, alor anitzen (kultura orokorra, kantuak, kirola, sukaldaritza, etab.), eskulanen, gorputz adierazpenaren, jokoan eta kirol aktibitateen bitartez. Izadiaren erdian ateraldiak antolatu ziren, baita elkarretaratze egunak ere (bi gaualdi kanpinean Arberoan Alaikin, Terra Aventura Iratin, sukaldaritza Sarde Sardexkarekin, mendi ibilaldiak Baiguran, Bigoudi pailazoaren ikuskizuna Izturitzeko zahar etxeko egoiliarrekin).



Uztail osoan, euskarazko proiektu bat gauzatu zen, Kanaldude tokiko telebista katearekin elkarlanean. Irudiari buruzko hezkuntza landu ondoan (teknikak, kamerak, soinu hartzeak, etab.), hurrek deliberatu zuten aisialdi zentroari buruzko erreportaia bat grabatu eta muntatzea. Bi egunez, haur eta animazio-taldeko kide batzuk elkarriketatu zituzten, eta eguneko memento espezifikoak filmatu zituzten. Proiektua bururatu zen Kanaldudeko lokalak bisitatu eta erreportaiaren aitzin agerraldi bat antolatuz. Interesa baduzu, dokumentala Kanaldudeko web-orrian ikusten ahal da.

Opor ttipiak gai desberdinen inguruan antolatu ziren (Hego Amerikaren ezagutza, Estatu Batuen ezagutza, hemengo eta hango lhauteriak), eta aktibitate bat baino gehiago prestatu ziren (kirol-aktibitateak, eskulanak, musika, animazioak eta abar). Izturitzeko herrian eta inguruetan oihaneke eta mendiko ibilaldiak antolatu ziren, eta baita animazioak, kanpoko parte-hartzaileak eta ateraldiak ere.

2022-2023ko ikasturteko asteazkenei dagokienez, 71 hurrek erabili zuten zerbitzua. Asteazken goizetan hor zirenak kanpoko parte-hartzaileek gidatu aktibitatez baliatu ziren (Yoseikan Budo, zeinu-hizkuntzako lehen irakaspenak, euskal dantza). Kanpoko parte-hartzaileen osagarri, Aurélie BISCAYCHIPY, Audrey IPUY, Elorri LANDABURU, Élodie CAZAURAN eta Karine HILDERAL animatzaileek hurrei hainbat aktibitate proposatu zizkieten, haur bakoitzaren erritmoari egokituz (Eguberriko merkatua, Afrikaren ezagutza, baratze baten egitea eta abar).

2023ko urrian, aisialdi zentroak Euskaraz Josta labela eskuratu zuen, Euskal Elkargoak aisialdi zentroaren biziko memento guzietan euskara sustatzeko proposatzen duen baliabidea. Hurrei ahala ematen die euskara mintzatu eta hobetzeko eta euskal kultura molde jostagarrian ezagutzeko, eskolaz kanpoko aktibitateen bidez. Arberoan Alaikik ERDIZKA ereduak labela eskuratu du, bi hizkuntzak ordu parekotasunean erabiltzen dituelako.

Argibide gehiago behar baduzu, jar zaitez harremanetan Carmen CARCELLERekin posta elektronikoz arberoanalaiki@isturitz.fr edo telefonoz (07.86.49.00.15).

Aisialdi zentroaren funtzionamenduari buruzko argibideak behar badituzu, jar zaitez harremanetan Izturitzeko Herriko Etxearekin, 05.59.29.62.84 telefono zenbakira deituz.





BIGABAT HERRIARTEKO ESKOLA ELKARGOAK AIHERRA ETA IZTURITZEKO ESKOLA PUBLIKOAK

Herri bakoitzeko ordezkariak osatu batzorde sindikal batek segurtatzen du BIGABAT Herriarte Eskola Elkargoaren (HEE) funtzionamendua, haietan, Frédéric Camou eta Arño Gastambide auzapezek eta ikasleen burasoen ordezkariak. Presidentea Arño Gastambide da.

2023an, haurrek ateraldi bat baino gehiago egin ahal zuten, igerilekura (Aiherran eskolatu haurrak), zinemara, eta ikusgarrien ikustera. Ikasturtearen hondarrean, Aiherran eskolatu haurrak Donostiara joan ziren; han hiria bisitatu zuten, akuarioa ere eta hondartza jokoak egin zituzten; Izturitzen eskolatu haurrak Donapaleura joan ziren, lehen frantziskotarren komentua zen Chemins-Bideak gunearen bisitatzera. Helburu Bakarreko Herriarte Sindikatua (HeBHeS) ditu ateraldi horietako garraioak finantzatzeko.

2023-2024ko sartzearan, HEEk 81 ikasle eskolatzen zituen, honela banatuak:

- **Izturitzeko eskolan** (ama eskola ttipietatik lehen urtera): 38 ikasle, frantseseko irakasle bat, euskarako bi irakasle eta bi laguntzaile elebidun.
- **Aiherrako eskolan** (bigarren urtetik bosgarren urtera): 43 ikasle, frantseseko irakasle bat, euskarako irakasle bat.

Sail elebkarrean izena eman duen haur bat izan ezik, bertze haur guztiak sail elebidunean eskolatuak dira, eta sail horretan irakaskuntza ordu parekotasunean egiten da: 12 ordu frantsesetik eta 12 ordu euskaraz, bina egunetan.

Izen-ematea haurraren bizilekuko Herriko Etxean egiten da.

ERAKUSTEA

Zure haurra "Bigabat" bateratze pedagogikoan eskolatzean, ikasle kopuru ttipietako geletan izanen da, eta ingurumen kalme eta lasaigarrian ibiliko da. Horji esker, zuek guraso gisa herriko bizia lotuko zirezte, ezagutza berriak egiten dituzue... Horrela gure herrietako eskolen iraunkortze lagunduko duzue, eta aldi berean gure basemi eremuko bizitasuna eta erakargarritasuna ere.

BIGABAT bateratze pedagogikoaren zikloak honela banatuak dira :

Izturitzeko eskola : ama-eskola

Aiherrako eskola : lehen mailako lehen urtetik bosgarren urtera

Talde pedagogikoa :

- Izturitze: Frantses irakasle bat, euskara irakasle bat, eta 2 ama-eskolek langile berezitu, denbor oso.
- Aiherra : Frantses irakasle bat, euskara irakasle bat.

Zuen haurra frantses hitseko sailean edo euskara-frantsesa sail elebidunean ezartzen ahal duzue. Elebidunean, irakaskuntza ordu parekotasunean egiten da: 12 ordu frantsesetik, 12 ordu euskaraz.

Oñarra : Elebitasun goiztiarra, elebitasunari buruzko atea da : Haurtzarotik euskara ikasteak, frantsesarekin betan, hirugarren hizkuntza baten ikastea errentuko du.



BATERATZE PEDAGOGIKOAREN ABANTAILAK

Irakasle maila kopuru apaltzeari esker haurra hobeki inguratua da eta laguntza berezitua du

Maila bereko ikasle artean emulazioa bada

Kolegiara pasatzean errekiko egokitzen dira

2 urtetik goiti haurren eskolatzeko baldintza hobetan egiten da



FUNTZIONAMENDUA

Eskola bakoitzean den zaindegiak haurrak errezibitzen ditu 7:30etatik goiti. Arratsan, 18:15 arte irekia da.
Goizean : 1€ - Arratsaldean : 1€



Eskolako jantegia ere eskola bakoitzean segurtatua da. Langile kalifikatuek ikasleak zaintzen dituzte bazkari denboran.

Lotura autobus batek haurren garraioa segurtatzen du eskola batetik bestera, segurtasun baldintza hobereetan, joan-jin bakoitz laguntzaile batekin.

GAINETARTEKO GAIAK

Haur ttipiak eskolari egokitu bi urtetik goiti

Haur ttipiek haien biharko eskola ezagutzeko aukera ukan dezaten...

Egokitzeko egun erdi bat edo gehiago proposatua zaio haur bakoitzari, eskolaren ezagutza egin dezan, lekuak eta hezkuntza taldearekin batera. Mundu berri horretan goxoki sartzeko kanpaina. Ez duda, hitzordua har ezazue eskolako zuzendariarekin.



Asteazkenetan



Arberoan Alaiki asialdi zentroa idekia izanzen da Izturitzen, asteazken guzti bakantzetatik kanpo. Kirol eta kultur ekintzak proposatuak izanen dira.

Milesker Carmen Carceller, zuzendariari igortzea mail bat, zenbaki uterak : alsh@izturitz.fr 07.86.49.00.15.

HARREMANAK

Isturitze : CASTILLON Bruno
Tél. 05 59 29 45 97 edo 09 67 78 45 97



Aiherra : BRENOT Emilie
Tél. : 05 59 29 42 13

Zuzendariak zuen zerbitzuko gelditzen dira edozein argitasun edo hitzordurendako. Aiptzin, herriko etxean behar duzue zuen haurraren izena eman.

GIZARTE EKINTZAKO UDAL ZENTROA (GEUZ)

Definizioa: GEUZak herriko gizarte arazoak kudeatzen ditu. Bere aurrekontu propioa dauka. Auzapeza izaten da honen lehendakaria, eskubide osoz.

9 kidek osatzen dute administrazio kontseilua, horien artean:

5 zinegotzi tituludun: Frédéric Camou, Virginie Légarto, Nickie Lelorec , Monique Lohiague, Karine Malé izengoitiz Cazot.

Zinegotzi ordezeko bat: Myriam Gourgues

Familien, adintsuen eta elbarrituen edo baztertzearen kontra eta gizarteratzearen alde borrokatzen diren **elkarteen 4 ordezkari:** Bernadette Ascery, Claude Candiard, Marie-Pierre Casemajor, Marie-Josée Lacroix.

Esleipenak

Nahitaezkoak: Gizarte Ekintzako dosierak osatu eta departamenduko zerbitzuei helarazi

Hautuzkoak: araudiak “prebentzio eta gizarte-garapenerako ekintza orokor bat” eramateko baimena ematen dio (Gizarte Ekintzaren eta Familien Kodeko R123-2. artikulua), diru laguntzak esleituz “jendetzaren beharrak aztertu” ondotik (Gizarte Ekintzaren eta Familien Kodeko R123-1. artikulua)

Esleitzeko modalitateak

GEUZak ez du ohiz kanpoko beharrak estimatzeko eskumenik. Beharrez, Hazparneko GEUZari dei egiten dio diagnostiko bat finka dezan.

Diru sartzeak izan daitezke herriak ordaindutako diru laguntza edo dohaintzak edo ondoriotasunez emandakoak

Erabakiak

Saioak atek hetsirik iragaten dira administratzaileek sekretua gordetzeko eginbeharra bete behar baitute. Neurri bakar batek ere ez du GEUZaren bilkura agiriak afixatzera behartzen.

Orotariko gaiak

Lineako urrats administratiboak, telelaguntza eta elkartasun asurantz osagarriari buruzko laguntza edota argibideak ematen dira (ikus eranskinak).

2023an

Herrian bizi diren eta 75 urtez goitikoak diren pertsonen janari saskiak banatu zitzaizkien. 30 pertsona inguru izan dira horien hartzaile.

Ekainean, 60 urte edo gehiagoko pertsonendako antolatu apairuan, 30 pertsona inguru bildu ziren. Memento goxo hori buruzko ohar zinez baikorrak egin zituzten.

Buruilean, “Nola erran ezetz, baietz hobeki errateko” gaiari buruzko mintzaldia antolatu zen, Sophie Schumacherrek animaturik. Hogeitabat pertsona bildu ziren, eta gualdia otordu arin baten inguruan bururatu zuten, solasaldien segitzeko.

ELKARTASUN ASURANTZA OSAGARRIA

2019ko azaroaren 1az geroztik, Asurantz Osagarri bat ordaintzeko Laguntza (ACS frantsesez) eta Eritasun Geriza Orokor Osagarria (CMU-C frantsesez) ordezkatu ditu Elkartasun Asurantz Osagarriak. Hortaz, Elkartasun Asurantz Osagarria baliabide berria da, eta osasun-laguntza aiseago eskuratzera eta osasun-gerizaren arloan babes hobea eskaintzera xedatua da.

Mediku-kontsultetarako, tratamenduetarako, hortzetako eta begietako artetarako, entzumen-laguntzetarako eta abarretarako eskubidea ematen du, gastu-abantzurik ordaindu behar izan gabe.

Eguneroko prezio finkoan ospitaleratua izateko eskubidea ematen du ere, iraupen mugarik gabe. Eta bestelako eskubide anitz ematen ditu ere. Urririkakoa edo pagatuzkoa izan daiteke, nor bere baliabideen, adinaren eta familiako pertsona-kopuruaren arabera. Pertsona bakar batek, urtean 9.203 € baino gutiago eskuratzen badu, hots, hilabetean 767 €, Elkartasun Asurantz Osagarria eskuratzen ahal du, urririk. Pertsona bakar batek, urtean 9.203 € eta 12.424 €-ren artean eskuratzen badu, Elkartasun Asurantz Osagarria eskuratzen ahal du, baina pagatuz (euro bat baino gutiago eguneko eta pertsonako).

Simulagailuen bidez zure eskubideak ebalua ditzakezu, webgune horietan:

mesdroitssociaux.gouv.fr edo ameli.fr/simulateur-droits/public/

Elkartasun Asurantz Osagarriko hautagarri zarela uste baduzu, hautagaitza galdea egiteko aukera hauek dituzu on line: www.service-public.fr/particuliers/vosdroits/LR52880 edo gutunez, hemen deskarga dezakezun Cerfa 12504 inprimakia bete eta igorritz: www.service-public.fr/particuliers/vosdroits/R54651.

Erien asurantz etxeak bi hilabete ditu erabakia hartzeko.

Desmartxa horiek egiteko zailtasunak badituzu, Izturitzeko GEUZek lagunduko zaitu. Horretarako, dei ezazu Herriko Etxera (05.59.29.62.84), eta Herriko Etxea GEUZekin harremanetan jarriko da, zure galdea GEUzi helarazteko.

TELELAGUNTZA

Etxeko telelaguntzak bakarrik bizi diren adineko pertsonak, pertsona bakartuak edo ahalmen urrikoak lasaitzen eta laguntzen ditu. Etxean arazo bat izanez gero (erorketa, bulta txarra eta abar), eguneko 24 orduetan eta asteko 7 egunetan, pertsona teleoperadore batekin harremanetan jartzeko ahala ematen duen zerbitzua da.

Zerbitzu horretaz baliatzeko, etxean telelaguntza instalatzea proposatzen duen erakunde batera harpidetu behar duzu.

Departamenduak bere lurraldean telelaguntzako zerbitzu publiko bat plantan ezarri du: le64téléassistance.

Oinarritzko eskaintzak barne hartzen ditu igorgailua eta hedagailua (material berria), instalazioa, mantentze-lanak eta erabiltzaileen formakuntza. Autonomiarako Norbanakoen Laguntzaren edo Ahalmen Urritasuna Konpentsatzeko Laguntzaren hartzaileen kasuan, Departamenduak bere gain har dezake oinarritzko zerbitzuaren harpidetzaren kostua.

Zerbitzu hori kreditu fiskalerako gastu hautagarria da.

Argibide gehiago behar baduzu, telefona ezazu 05 54 12 06 64 telefono zenbakira.

Zerbitzu honetan harpidetza hartzeko, hemen klik egin ezazu: le64.fr/le64teleassistance edo autonomie64.fr.

Enpresa pribatuek edo elkarteek ere proposa diezazukete zerbitzu hori.

Beharrez, Herriko Etxearekin harremanetan jar zaitezke, eta hark eskaera igorriko dio GEUzi.

ARBEROAKO IBARRAREN IRUDIA HOBETZEKO PROIEKTUA

Lurralde-politikaren parte gisa, Hazparnealdeko lurralde eremuko (11 herri) hautetsiak ibilbide-orri bat egiten ari dira, eta, ibilbide-orri horretan, politika publiko bakoitzeko, bidean diren eta gauzatuko diren proiektuak biltzen dira. “Ofizialekoa eta kultura/turismoa” atalean, hautetsiek laguntza emateko galdatu diote Atlantikoko eta Pirinioetako Hirigintza-Agentziari (AUDAP).

2021ean eta 2022an, lantaldeetan zenbait bilkura antolatu ondoan, denak ohartu ginen Arberoako ibarra lurralde ontsa kontserbatua dela, aniztasun eta aberastasun handikoa, baina ez dela aski baloratua bere ahalmenari eta natura-, ondare-, kultura- eta gizarte-ezaugarriei dagokienez.

Orduz geroztik, bilkura bat baino gehiago egin dira Euskal Hirigune Elkargoarekin, Euskal Elkargoko Turismo Bulegoarekin, ibarreko sozioprofesionalekin eta elkarte-sarearekin. Bilkura horiek berretsi egin dute egokia dela gogoeta egiten segitzea, Arberoako ibarraren irudia hobetzeko proiektua plantan ezartzeko.

2023. urtearen hondarrean, Euskal Elkargoko Turismo Bulegoak eta Euskal Hirigune Elkargoak, esperimentu gisa, laguntzea proposatzen ziguten, haien baliabide materialak, giza baliabideak eta diru baliabideak gure esku ezarriz. Aldi berean, Donostiri, Donamartiri, Aiherra eta Izturitzeko herriek erreferente bana izendatu zuten proiektuaren segimendua egiteko. Elkarlan horri esker, 2024ko martxoaren hastapenean eta bost hilabetez, ikastun bat (Léa Lemaire) hartu ahal izan genuen. Haren eginkizuna da proiektu hau obratzeko gogoetan ibarreko eragile eta hautetsiak laguntzea.

Ibarraren balorizazioaren xedea da elkarrekin eraiki proiektua izatea eta proiektua bi ardatzen inguruan egituratzea: ibarreko dinamika eta ikusmolde turistikoa. Lehenik, ibarreko lau herriek proposatzen dute talde-dinamika bat sustatzea, elkarretaratzeko, elkar ezagutzeko, baina baita “ibar-izpiritua” sortzeko ere, denen arteko garapen proiektuak lantzen hasteko; hots, ibarreko dinamika sustatzen dituen desmarxa kolektiboa izatea da lehen helburua. Bigarren helburua da turismoari buruzko gogoeta egitea. Izan ere, gogoeta hori egin behar da, bertze ikusmolde turistiko bat proposatzeko, turismoa bertze gisa batera begiratu eta ulertzeko. Ibarreko proiektu turistikoa asmatu behar da, berritzailea eta arduratsua izanen dadin, harrera estrategia zehatza eta eskaintza egituratua izanen ditzan. Hemengo jendeek pentsatua izan behar du, hemengo jendeentzat.

Beharrak eta osagaiak identifikatuak dira beraz. Orain, eskas da horiek proiektu orokor batean biltzea eta antolatzea, gure ibarra bizitzeko on eta bisitatzeko goxo izan dadin. Proiektu hori epe luzera gauzatuko da, eta denek parte hartu beharko dugu horretan.



BALTSAKO GARRAIOEN ESKAINTZAREN BILAKAERA HAZPARNEALDEAN

Ipar Euskal Herri eta Aturriko Mugikortasunen Sindikatuaren aurreikuspenen arabera, % 75 handituko da TXIK TXAK sarearen herriarteko lineen baltsako garraioen eskaintza 2025eko. Guri dagokigunez, 2025eko urtarrilaren 6tik goiti, 13. linea kanbiatu eta Hazparnen geldituko da (Baiona-Hazparne ibilbidea). Ez da gehiago Izturitzetik pasatuko. 15. linea kanbiatuko da ere, Kanbo-Hazparne-Donapaleu ibilbidea egiteko, eta hura da Izturitzetik pasatuko.

Xehetasunez, horra zer kanbiatuko den 2025ean guretako:

- 13. linea: Eskaintza: Hazparne-Baiona, 12 joan-etorri astelehenetik ortziratera (haitan 6 autobus espres); 4 joan-etorri larunbatetan + 5 joan-etorri igandetan. Maiztasuna: 30min erabilpen handiko orenetan et 60min egunaz. Oren bitartea: 06:30etik 19:00era. Azken geldileku berria: Hazparneko Armand David lizeoa.
- 15. linea: Eskaintza: 4 edo 5 joan-etorri astelehenetik ortziratera: Kanbo-Hazparne-Donapaleu. Oren bitartea: 06:30etik 18:30era. Ibilbide berria: Donapaleu eta Kanboren arteko lotura.

2025eko urtarrilaren 6tik goiti, Izturitzetik Baionara joateko, lehenik 15. linea hartu beharko da Izturitzetik Hazparnera, eta gero handik 13. linea hartu beharko da Baionara joateko.

ESKAERA BIDEZKO GARRAIOAREN (EBG) PLANTAN EZARTZEA HAZPARNEALDEAN

Ipar Euskal Herri eta Aturriko Mugikortasunen Sindikatuak Eskaera Bidezko Garraioaren (EBG) plantan ezartzeko asmoa du Hazparnealdean, 2025eko. "TXIK TXAK ekialdea" sareko (13. eta 15. lineak) herriarteko lineen mugikortasun-zerbitzuen osagarri izanen da zerbitzu berri hau.

Eskaera Bidezko Garraioa banakako autoaren ordezkoko garraio bide bat da Hazparnealdeko lurralde eremuko herri guzietako herritarrendako. Aitzinetik erreserbatu behar den zerbitzu horrek zure etxetik zure "bizi eremuko" geldileku nagusi batera eramaneen zaitu, handik, gero, "TXIK TXAK ekialdea" sareko linea erregularrak har ditzazun edo zure beharren arabera mugi zaitez. "Bizi eremuaren" nozioa dagokie leku zentral baten edo batzuen inguruan biztanleek ekipamendu eta zerbitzu arruntenetarako sarbidea duten sektoreei.

2025eko urtarrilaren 6tik goiti, Eskaera Bidezko Garraio zerbitzu hori erabiltzen ahalko da gure herrian. Astelehenetik larunbatera ibiliko da (besta egunetan izan ezik), 07:30etik 19:30era (azken abiatzea). Bilketa-lekutik 25 km-ko inguruan garraituko ditu herritarrek, hots, etxeko atetik sektoreko baltsako garraio sareko geldikuetara edota ekipamendu nagusietara (osagarri-etxeak, saltegiak, Pôle Emploi, igerilekuak, etab.).

Horretarako, aitzinetik erreserbatu beharko da 05 58 35 28 00 (zenbaki bakarra) telefono zenbakira deituz edo Interneten TXIK TXAKen webgunean (ordu bat lehenago erreserba daiteke, ibilgailua libre bada). Zure etxean hartuko zaitu ibilgailuak eta "bizi eremuko" geldileku nagusi batera eramaneen. Ondotik, gibelera ekarriko zaitu. (Igurikaldia +/- 30 min).

Zerbitzuaren erabiltzaileak Hazparnealdeko herritar guziak izan daitezke. Mugikortasun urriko pertsonak ere erabil dezakete zerbitzua. TXIK TXAKen ohiko prezioak aplikatuko dira.

Lehen urratsean, horiek izanen dira "bizi eremuko" geldileku nagusiak (zerrenda hori kanbiatuko da identifikatzen diren beharren arabera):

Hazparne: Leclerc merkataritza-zentroa; Mendeala; Elgar zerbitzu-etxea; osagarri-etxea; Harana plaza; Caisse d'Epargne banketxea.

Bastida: igerilekua eta kirol muntadurak; herri barnea; zahar etxea.

Beskoitze: Pagoeta; herri barnea.

Izturitze: zahar etxea.

Heleta: Herriko Etxea...

AUTOKIDETZAN IBILTZEKO SARIA

Ipar Euskal Herri eta Aturriko Mugikortasunen Sindikatuak hilabeteen 150 euroraino itzultzen dizkie autokidetzan ibiltzen diren gidariei, eta urririkakotasuna eskaintzen die bidaiariei.

Gainera, bada ere 2023ko urtarrilaren 1etik plantan ezarri den autokidetzan ibiltzen diren gidari berriei ematen zaien 100 euroko laguntza.

Honi buruzko argibideak: <https://www.txiktxak.fr/vos-moyens-detransport-a-la-carte/le-covoiturage/>

“EUSKAL MENDIA” ESKUALDEKO PARKE NATURALAREN (EMEPN) PROIEKTUA

Euskal Mendia proiektu dinamikoko lurraldea da. Duela hamabost urte inguru egituratu zen mendiko aktibitate desberdinen arteko elkarbizitzari buruzko gogoeta kolektiboen inguruan, oharturik erabilerak eta ohiturak kanbiatzen ari zirela. Gaur egun, mendia ez da soilik kabala hazleen lan tresna, bertze aktibitate anitzen gertalekua ere bada.

2003an, Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluak txosten bat argitaratu zuen, *Concilier l'agropastoralisme, la forêt et les activités de loisirs dans la Montagne Basque* (Euskal mendian laborantzako jarduerak, oihana eta aisialdiak bateratzea) izenekoa. Ondotik, tokian tokiko eragileak mobilizatu ziren, lurralde horren etorkizunari buruzko gogoeta kolektiboa egiteko, lurralde horren etorkizuna beren gain hartzeko eta lurralde horren bizitasuna, kalitatea eta ondare-aberastasuna zaintzeko. Hala, 200 pertsona inguruk –gizarte zibileko hautetsiek eta ordezkariak– parte hartu zuten *Euskal Herriko Mendi Ituna* (2007) adostu eta idazteko lanean, lau Laborantza-Helburuko Batzorde Sindikalen ekimenez, Ipar Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak zuzentzen zuen *Ipar Euskal Herria 2020 Lurralde Proiektuaren* barnean.


LEADER Euskal Mendia (2007-2014) lehen programak itun hura molde eraginkorrean gauzatu zuen, Europar Batasunak eman dirulaguntza batzuekin, gobernantza publiko eta pribatu batek onartutako garapeneko proiektu kolektiboak sostengatzeko. Programa horrek sortu talde-dinamikan oinarrituz, Ipar Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak deliberatu zuen bigarren LEADER programa bat aurkeztea (2014-2020). Programa horren xedea zen Euskal Mendia izeneko lurraldea indartzea, eta orduan abiatu ziren Euskal Mendian Eskualdeko Parke Natural bat sortzeko lehen gogoetak (2014), ekintza epe luzekoa izan zedin.

Euskal Hirigune Elkargoak eta Euskal Herriko Mendi Elkargoen Batasunak (EHMEB) sustaturik, egokitasun- eta bideragarritasun-azterketa bat egin zen 2017tik 2018ra, egiaztatzeko ea Euskal Mendiak Eskualdeko Parke Natural gisa sailkatua izateko irizpideak betetzen zituen. Gizakia-Natura-Kultura triptikoa argitan ezartzean eta triptiko horren balioa agerian ezartzean oinarritutako azterketa hau Eskualdeko prefet andereak 2019an onartu zuen.

2020tik 2022ra, Eskualdeko Parke Naturalaren proiektuaren sustatzaile ziren hautetsiek informazio-bilkura anitz antolatu zituzten tokiko hautetsiekin eta sozioprofesionalekin. 2022ko primaderan, tokiko hautetsiendako 14 informazio-bilkurako bigarren ziklo bat antolatu zen hamar bat herritan, lurraldea ahal bezain ontsa estaltzeko. Dosierraz arduratzen diren Euskal Elkargoko eta EHMEBeko hautetsiek bultzaturik, azterketaren perimetroan dauden 111 herritik 86 herriko 223 hautetsi sentsibilizatu ahal izan ziren.

2020tik hasi gobernantzari buruzko lan handi baten ondotik, Euskal Mendia Eskualdeko Parke Naturalaren proiektuak urrats garrantzitsu bat egin zuen 2024ko martxoan, Euskal Mendia Eskualdeko Parke Naturalaren proiektua aitzinetik itxuratzeko sindikatu mistoa sortu zelarik. Sindikiatu misto hori kide sortzaileen ordezkari osatua da: Euskal Elkargoa, 5 Mendi Elkargoen Batasunak Sindikalak, Akitania Berriko Eskualdea eta Pirinio Atlantikoetako Departamendua. Sindikatu misto horren helburu nagusiak izanen dira batetik Ituna prestatzea, lurraldeko indar eragileekin batera eraiki ibilbide-orria, eta, bertzetik, sailkatua izateko administrazio-prozedura osoa segitzea labela eskuratu arte (2028ko).

Pirinio Atlantikoetako Laborantza Ganbera, EHLG elkarte (Euskal Herriko Laborantza Ganbera), ONF (Frantziako Oihanetako Erakundea), CRPF (Oihan-Jabegoaren Eskualdeko Zentroa), Ipar Euskal Herria eta Seinautzeko LuKE (Lurralde Koherentzia Eskema), MLE/LE (Mendiko Lur-funtsen Elkartea eta Laborantzako Elkargoak) eta Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseilua sindikatu mistoko kide dira ere, *kide partzuer* gisa, Itun horren idazketa prozesua hurbiletik segitzeko. Azkenik, EPNeen perimetroan dauden 111 herrietako Herriko Kontseilu bakoitzak bozkatuko du Itunaren alde, haietan, Izturitzeko herriak.



LAPURDI EKIALDEKO HTHPA

Euskal Hirigune Elkargoa 2023ko abenduan Elkargo azpiko Tokiko Hirigintza Planaren (hTHP) lantzen hasi zen; Lapurdi Ekialdeko 27 herri biltzen ditu, Izturitze-ko herria barne.

Hirigintza Kodearen L.153-8 artikulua arabera, hTHPa Euskal Hirigune Elkargoaren ardurapean egiten da, dokumentu gaitan eskumena baitu, kide diren herriei elkarlanean.

Zer ote da hTHPa?

hTHPa bizi eremuaren heineko hirigintza dokumentu bat da, lurraldearen funtzionamendua eta erronkak aztertzen dituen, ingurumena errespetatzen duen garapen-proiektua eraikitzen duena eta lurraren erabilera arauen bidez formalizatzen duena.

hTHPak lurraldearen antolaketa lehentasunak finkatzen ditu bizi ingurumenaren kalitateari lotu erronkak bateratzeko, hala nola: bizitegien eraikuntza, lurren erabilera xuhurra (bereziki laborantza, natur eta oihan eremuena), mugikortasunak, jarduera ekonomikoen garapena...

Zer bilakatuko ote da indarrean dagoen Hazparnealdeko hTHPa?

Lapurdi Ekialdeko hTHParen eremua Hazparnealdekoarena baino zabalagoa da. Lapurdi Ekialdeko hTHPa onartu ondoan, egungo arauak gidatzen dituen dokumentua ordeztuko du. Apailatze prozedura luzea da eta bospasei urte beharko dira hTHPa onartu arte. Artean, Hazparnealdeko hTHPak indarrean segitzen du.

Burura helduta, Euskal Hirigune Elkargoaren lurraldean 5 hTHP izanen dira: Itsasbazterra Lapurdi Ekialdeko hTHPa / Lapurdi Ekialdeko hTHPa / Amikuzeko hTHPa / Hego Baxenabarreko hTHPa / Zuberoako hTHPa.


hTHPek lursail (lur eskubidea) bakoitzaren bilakaera arautuko dute lurraldearen garapen koordinatua eta jasagarria bermatzeko heldu diren 10-15 urteetan.

Oraingo araudia errespetatu beharko dute (bereziki Klima eta Erresilientzia legea), eta horrek eraikiak ez diren lursailen urbanizazioaren irekitzea eta mantenua azkarki mugatzen du.

Nola parte hartu?

Hitzartzea hTHParen apailatze prozedura osoan zehar egiten da. Hitzartzearen helburua da lurraldeko biztanleen oharrak eta ekarpenak biltzea. Elementu horien interes orokorrean eta herrien garapenean parte hartuko dute eta proiektua aberasten lagunduko dute.

Hitzartze horretan parte hartzeko eta zure iritzia emateko baliabide bat baino gehiago plantan ezarriko dira. Argibide gehiagoren ukaiteko, Euskal Hirigune Elkargoaren webguneari so egizu erregulariki, prozeduraren aitzinamenduaren eta hari lotu hitzartze moldeen berri ukanen duzu.



HERRIKO ELKARTEEN BIZIA



BESTA KOMITEA

2023an, Besta Komiteak hiru proiektu obratu zituen.

Urtea hasi genuen sagarnotegi afariarekin, otsailaren 11n, larunbatean. Hor ziren jendeek apairu goxoa jan ahal izan zuten, LE CUISTOT GOURMANDek apailaturik eta GANITA KAMUTSek alaiturik. Gauerdian, dantzaldia eskaini zuen ANDONI OLLOKIEGIk, eta kantu famatuen moldaketekin, giroa arras berotu zuen!

Gero, otsailaren 18an, larunbatean, Ihauteriak antolatu ziren, Artetxearekin elkarlanean. Aurtengo gaia “disco musika” izan zen. Jende anitz bildu ziren Izuritzeko plazan, aro ederrarekin eta ostatuaren inguruan, memento goxo baten partekatzerara, desfilea Izuritzera heltzen zen bitartean.

Eta, azken proiektua, herriko bestak! Urte guzietz bezala, ortzirale arratsean hasi ziren. Ortziraleko programaren lehen zatian berritasun bat proposatu genuen: lehen mailako pilota partidak. Hori biziki prezatu zuten herritarrek. Gero, garagarno eta pintxo gaudiak izan zen, eta errugbi-partida bat hedatu zen pantaila handian. Ondotik, ERROMESAK talde berriak kontzertu bat eman zuen, eta, azkenik, BASAPIZTIAK taldeak animatu zuen dantzaldia, gelako giroa ontsa berotuz!

Larunbat arratsaldean, lau taldekako bubble futbol lehiaketa antolatu genuen. Irri eta erorketa anitzen artean, parte-hartzaileek garagarno batzuk edan ahal izan zituzten, eguzkitan. Gure zikiro bestari dagokionez, TARRAPATAKAN taldeak bazkaria ederki alaitu zuen, eta gero GAUBELE taldeak dantzaldia eskaini zuen, goizeko 5ak arte!

Igandean, urte guzietz bezala, Artetxeak antolatu eta WATSONek alaitu usaiako bazkariak baliatzeko parada izan genuen. Arratsean, bertze berritasun bat; Muttur'gaua antolatu genuen, Mutturfin-ekin elkarlanean. Ahotik ezin utziak diren bere hanburgerrak jan zituzten jende guzietz, besta biharamuna zutenek ere!

Urriaren 14an, larunbatean, urtea bururatu zen herritarren apairuarekin. LAGUNEKIN CANTAR taldeak alaitu zuen apairu goxoa.

Bulegoari dagokionez, kanbiamenduak izan dira. David ETCHEMENDY eta Iban ST ESTEBENek presidente izaten segitzen dute, diruzain berria Bixente CARCELLER da, Anaïs CASEMAJOREk idazkari izaten segitzen du eta Amaia HARAMBOURE bulegoan sartu da, idazkari gisa hura ere.

Komiteak eskerrak eman nahi dizkie laguntzaile guzietz beren parte hartzeagatik. Milesker ere aurren Komitean sartu diren gazteei!

Eskerrak zuei ere herritarrek zuen eskuzabaltasunagatik, parte hartzeagatik eta umore onagatik! Laster arte!





ARTETXEA



2023. urtea, azken urteetako segida bat izan da.

Usaiako ekitaldiak antolatu ditugu : EHko mus txapelketaren kanporaketa; Hazparne eskualdeko ihauterier harrera pesta komitearekin; txontxongilo ikusgarri bat IENER elkartearekin; mutxiko gualdia; udako kantaldia; mago ikusgarria Arberoa ikastolarekin; mintzaldia; gau beltza; antzerkia herriko gazteek emanik; kantu bazkaria ...

Berritasun bat aurten, plazer haundirekin errezebitzen dugu Artetxean Arberoa eskualdeko ekoizleen merkatua.

Ostiral guziz aratsaldeko 6ak eta 7:30 artean, barazkiak, oilaskoa, ogia, gasna, esnekiak, garagarnoa eta beste hatxemaiten ahal dituzue...

Parada ezin hobea apairu on batzuen prestatzeko eta laborarierantzat dugun elkartasunaren bizitzeko!

Jarduerak ere segitzen dute urtean zehar : euskara kurtsoak; yoga; step-a; Artetxea kantuz; Komunikazio Ez Bortitz pratika taldea, ...

Hemen ere berritasun bat badugu, alabaina aurten arte tailerrak proposatuak baitira. Kurtso horiek 3 taldetan emanak dira: haur, gazte eta heldu eta 5 epetan banatuak : marrazketa, hari korapiloa, modelismoa, tindua eta zizelketa.

Arrakasta ukan duen proposamena, taldeak segidan bete baitira!

Aurtengo xedeetan dugu Artetxearen 10. urtea behar bezala ospatzea, usaiako egitarau aberatsa proposatuz adin guzietako publikoarentzat !

Laster elgar ikusiko dugulakoan!



ARBEROAKO JOALDUNAK

Arberoako Joaldun taldeak aintzina segitzen du beti.



Neguko ihauterietako ateraldien ondotik sagarnotegi bazkaria antolatu ginuen, martxoaren 23an, han jende talde eder bat bildu zen egun goxo baten pasatzeko eta haien sustengua helarazteko. Horrela, gualdi, bazkari edo ateraldiei esker eta inguruan diren pertsonen sustenguari esker joaldun taldearen ekipamendua osatzen ari gira. Nay-en manatutako joareak, adibidez, apirila hondarrean helduko dira Arberoaratz.

Gogotik eskertu nahi ditugu Donapaupeko joaldunak, haien joareei esker egin baititugu orainarteko ateraldi eta errepikak.

Adi joareen dolongari,
ari eta ari,
ibarreko inharrosteari!



ERBERUA

Biltzar Nagusiaren hastapenean, 2023ko azaroaren 18an zendu zen Jean-Michel Etchartez oroitu ginen, bihotz hunkidura batekin. Urte anitzez laguntzaile izan zen, epaile gisa pala txapelketan edo ibiltarien jan-edanez hornitzean mendi ibilaldietan. Gainera, pilota partidetan baliatzen diren puntu-kontagailuak hark egin zituen; eta haren familiak gure elkarteari eskaini dio etxean erresalbian atxikitzen zuen puntu-kontagailu berri bat. Eskerrak bihotz-bihotzetik.

2022-2023ko pala zabaleko txapelketa

Euskal Herri osoko 74 taldek parte hartu zuten. 2022ko azaroaren 28an hasi eta 2023ko apirilaren 29an bururatu zen, finalekin. Finalen ondotik, zintzur bustitzea antolatu zen eta, azkenik, Mutturfinek apailatu apairua, On Egin gelan. Elora, Amaia, Marie eta Léanek zerbitzatu zuten, eta Sandra Harambourek koordinatu zuen dena. Eskerrik haiei guziei. 46 pertsona bildu ginen.

Laguntzaile anitzen eskuzabaltasunezko parte hartzeari esker, sari anitz banatu ahal izan zen. Kartsuki eskertzen ditugu, pilotariak zinez kontent baitziren beren opariekin.

Laguntzailerik gabe, txapelketarik ez! Beraz, eskerrak ematen dizkiegu Jean-Marc Darasperi izen-emateak kudeatzeagatik, Philippe Garisperi gibelatu partidak eta egutegia antolatzeagatik Battitt Erreçaret eta Véronique Garay-Labatekin, Carmen Carcellerri ostatuaren funtzionamenduaz okupatzeagatik, Peyo Etchegoyen, Éric Mimiague eta Jean-Marc Darasperi epaileez arduratzeagatik, epaile guziei eta ostatuan lanean ari izan diren jende guziei.

Laguntzaileen ateraldia 2023ko urriaren 23a igandean

Duzunaritzera joan ginen autobusez, Gamia jatetxera, bazkaltzera. 35 pertsona bildu ginen. Eguna biziki ontsa joan zen, giro onean, aro zinez ederrearekin. Parte hartzaile guziak loriatu ziren.

2023ko urriaren 29ko mendi ibilaldia



520 parte hartzaile izan ziren, haietan 289 oinez eta 231 mendiko bizikletaz, helduak eta haurrak barne.

Bigarren urtez segidan, D'Héauritz à Paris 2024 elkarte hautatu genuen, izen-emate bakoitzeko euro bat eskura zezan. Laguntza horri esker, Heraitzeko zentroko ahalmen urriko sei pertsona Parisera joaten ahalko dira 2024ko buruilean, Paralimpiar Jokoen ikusteko.

Eskerrak eman nahi dizkiegu partikularki laguntzaileei. Izan ere, E egunean, laguntza ematen dute aparkalekuetan, izen-emateetan, ibiltariei jan-edanak ematen, hainbat segurtasun-puntutan, ostatuko zerbitzuan, sukaldari-lanetan (milesker Bernadette eta Virginie!), koordinazioan (milesker Bernadette!) eta abarretan. Denak mobilizatu dira eguna kausitua izan dadin. Eskerrak eman

nahi dizkiegu ere beren lurretatik pasatzen uzten gaituzten jabeek. Milesker ibilbideak garbitzeko zenbait arratsez elkarretaratu diren pertsonen eta sasiak garbitzeko zenbait egunez bildu diren pertsonen ere. Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu Jean-Michel eta Sylvain Donapetryri beren pentzea gure esku ezartzeagatik, ibilgailuak han aparka daitezen, segurtasun osoz.

Egun bakarrean, Izturitzeko biztanleriaren hein bereko jendetza errezibitu zuen gure herriak. Horretarako, 70 pertsona mobilizatu behar izan ziren.



Denen gelako barra

ERBERUA elkarteak edari mahai bat ezartzen du denen gelako erabiltzaileen esku.

Azken biltzar orokorrean, deliberatu zen denen gelarendako barra berria egitea. Behar gabeko xahutzerik ez izateko, Jean-Pierre Dacharyk kanbiamenduak eta hobekuntzak ekarri zituzkien duela urte anitz zenbait hautetsi eta laguntzailek fabrikatu zuten barra bati. Edari mahai berria zinez ederra eta praktikoa da. Elkarteak materiala ordaindu zuen eta Jean-Pierrek eskulana urriarik egin zuen. Eskerrak hari bihotz-bihotzetik. Elkartearen izena agertzen da, erdian idatzirik.



IZTURITZEKO GORATIK IHIZI BAIMENDUKO HERRIKO ELKARTEA

2022-2023ko ihiziko sasoia usaiaiko ihiziko aktibitateen erritmoan iragan zen: bakarkako ihiziak (zakur lasterkatzailearekin edo zakur gelditzailearekin), taldekako ihiziak (ihizaldiak), hegazti migratzaileen iragatea (biligarroak eta urzoak) eta orotariko lanak (lur itzultze, belar pikatze eta bideen mantentze-lanak).

Sasoi horretan, 21 ihiztarik (14 izturiztarrek eta 7 kanpokok) galdatu zuten herriko ihizi-baimena.

- ⇒ Efikazia handitzeko, basurdearen ihizia egituratu zen, eta orain sei herritako ihiztariek ihiztatzen dute elkarrekin: Izturitze, Donamartiri, Donoztiri, Armendaritze, Iholdi eta Landibarrekoe.
- Antolamendu berri horri esker, ihizaldietan behar den ihiztari kopurua izaten ahal da, eta, ororen buru, efikazia handiagoa. Orotara, 60 basurde hil ziren sei herri horietan.
- ⇒ Algeco prefabrikatu bat ezarri zen herriko lurretan, Oragarreko bidean. Ihizi elkarteko kideak lokal horren barneko antolamenduez eta kanpoko apainduraz arduratu ziren.
- ⇒ Aitzineko urteetan bezala, Ihizi Baimenduko Herriko Elkartek saltzen ditu basurdeekin egin zenbait produktu:
 - Axoa: 1,200 kg-ko kontserba bakoitzeko 12 euro.
 - Lukainkak: 1 kg-ko airerik gabeko zakutto bakoitzeko 10 euro.
 - Zozizonak: zozizon bakoitzeko 5 euro.
 - Patea: 250 gramoko kontserba bakoitzeko 4 euro.
- ⇒ Maizegi gaitzetsia den ihiziari buruzko zure iritzia ukateko, lehenik herriko ihiztari batekin ihiztatzeraz jiten ahal zara eta, zergatik ez, gero, ihiziko baimenaren azterketa egin. Ez duda eta jiteko gogoia duzula ager ezazu, gure herriko zenbait leku ezezagun eta interesgarri ezagutzeko parada izanen baituzu!



Argibide gehiago behar baduzu (basurdearekin egin produktuen erostea, ihiziko molde baten ezagutzeko gogoia, ihiziko baimenari buruzko galderak, etab.), jar zaitez harremanetan Ihizi Baimenduko Herriko Elkarteko bulegoko kide batekin:

Peyo ETCHEGOYEN: 06.79.71.67.46

Jon ETCHART: 07.82.66.15.67

Guillaume LABARERE: 06.59.91.88.04

BIGA BAT Ikasleen Burasoen Elkartea

2023an, Biga Bat Ikasleen Burasoen Elkarteak ekintza eta gertakari anitz antolatzen segitu zuen bi herrietan (Aiherran eta Izturitzen).

Otsailean, elkarteak mus txapelketa antolatu zuen, eta 76 taldek parte hartu zuten.

Gero, Pazkoz, Antton txokolategiarekin elkarlanean, txokolateak saltzea proposatu zitzaizen familia guziei.

Maiatzaren 1eko ibilaldiak eta bixkotx salmentak arrakasta ukan zuten! Alta, goizean, aroa ez zen batere ezia... 206 parte hartzaile ibili ziren atsegin handiz bidexketan eta oihanpean barna, eta han-hemenka jan-edanez hornitu ziren. Gertakari horretan, gogoan darabilzkigu gure haurrak, baina Ikasleen Burasoen Elkarteak nahi izan zuen Gazteak elkartea (haur eta nerabeendako eguneko ospitalea) lagundu, hari 250 euroko laguntza emanez.

Ekainean, Aiherrako besten kariatara, gure usaiako taloek gaitzeko arrakasta ukan zuten.

Ondotik, eskolako besta ospatu zen. Ikusgarriaren ondotik, bakoitzak etxetik ekarri janariak partekatu genituen eta ostatuko edariak edan.

2023ko azaroan, berritasuna izan zen. Izan ere, Halloween arratsaldea ospatu zen, herriko denen gelan. Egitarauan, makillatzea, jokoak, askaria, hot dog ogitartekoak eta ostatua! Familiek eta herritarrek azkarki parte hartu zuten, memento izigarri atsegina pasatzeko.

Gertakari horiei guziei esker, ordaindu ahal izan genituen “eskola eta zinema” proiektuko sarteak, Euskal Hirigune Elkargoak proposatu ikuskizunetako sarteak, Eguberriko askaria, eskolako ateraldiak, kanpoko parte hartzaileak (zirkua) eta bi eskoletako ekipamendu edota material pedagogiko berriak.

Gertakari horiek guziak antolatu ahal izateko, elkarteak deliberatu du bi plantxaren eta baso berrien erostea, eta horrek autonomia pixka bat handiagoa emanen digu.

2024an, gertakariak dibertsifikatzera entseatuko da elkartea. Hori guzia egiten du gure haurren gogoia irekitzeko, eta gure haurrek kultura-, kirol-topaketa, leku edota ezagutza berriak egin ahal izan ditzaten.





ARBEROA IKASTOLA AINTZINA

Arberoa Ikastola, Donamartiriko Arberoa Ikastolan eskolatuak diren haurren burasoen elkarte da. Frantziako Hezkunde nazionalaren ardurapeko eskola da, Euskarazko murgiltze sisteman oinarritzen dena.

2023/2024 ikasturteko sartzea 56 ikaslerekin iragan da.

2023 urtea abiatu ginuen Arberoako ibarreko herritarren zuzendu sustengu kanpainarekin. Otsailean, rougail-lukinka apairu saltzea etxera eramaiteko gisan antolatu ginuen. Urtebetetze kutxak ere proposatu ditugu, zorionak ! euskaraz ospatzeko xedez. Otsailean beti, Nerea Ibarzabal eta Amets Arzallus gomitatuz iragan zen bertso afaria Donamartirin.

Martxoan, « Mandotik astora » Guillaume Irigoienek antzerkia eman zuten Izturiztar batzuek ikastolaren alde. Martxoan segitzeko, txontxongilo ikusgarri bat ere antolatu ginuen. Bazko kari, txokoleta salmenta ere izan zen eta maiatz hastapenean, « Alte Voce » korsikar taldearen kantaldia apailatu ginuen Armendaritzen.

Ekainean, urte guziet bezala, « Hiru Zango »-ren ibilaldiak eskuz esku proposatu genituen Ezkia Ikastolarekin. Aurten Ursuia inguruan ibili ginen, Hazparneko Ezkiak 50 urte ospatu dituelako. Besta berri eta otaba kari, bixkotx salmentak iragan ziren. Gero, Arberoa Eguna, ikastolaren ikasturte undarreko besta Izturitzen izan zen.

Eta uztailan, Donamartiriko besten idekitzea animatu zuen gure Arberoa Txarangak, mutxiko gaualdia eskainiz.

Buruilean, marmitako menua etxera eramaiteko sukaldatu ginuen.

Urrian, mus txapelketa ere eskaini ginuen Donamartirin. Eta Zarena Zarelakoren azken dantza ikusgarria ere ekarrarazi ginuen Hazparneko Mendealara gelara. Urtearen bururatzea markatu berri dute Tor Magoaren ikusgarriak, Eguberriko merkatuak eta Olentzero eta Mari Domingiren etortzeak.

Oroitarazi behar dugu, buraso batzuek osatu Arberoa Txarangak, aurten ere, dozena bat ekitaldi animatu dituela antolatzaile ezberdinek galdeginik.

Eskertzen ditugu ere hainbat elkarte, leku bat proposaturik beren animazioetan : Donamartiriko besta komitea eta Belhorritz, Izturitzeko Artetxea, Aiherrako besta komitea (freedom for Aiherra), Ezkia ikastola eta Arberoako Txaranga deitu duten elkarte guztiak. Eskerrak ere urtean zehar laguntzen gaituzten herriko etxe ezberdiner.

Aurten 15 urte ospatuko ditu Arberoa ikastolak. Horren karietara, urtarilaren 27an, kontzertu gaualdia Hazparnen izanen da. IZARO, Patxaranga eta Xutik taldeekin.





ABARRATIA

Pilotari eskaini 30 urteko esperientzia, esku huskan eta emazteen palan

Aurkezpena

Gure elkartearen helburua da pilota jokoen (esku huska eta emazteen pala) sustatzea, jokaleku guzietan (trinketan, plazan eta ezker paretan). Garrantzi handia ematen diegu gazteei, aldi berean joko honen balioak haiei helaraztera entseatuz eta gure herriak biziaraziz.

Eskerrak eman nahi dizkiegu partzuer diren hiru herriei –Donoztiri, Aiherra eta Izturitzeri–, gu azkarki sostengatzeagatik. Dirulaguntzen eta herriko azpiegiturak prestatzearen bidez egiten duguten ekarpen baliosa zinez funtsezkoa da gure elkartearendako.


Garaipenen zerrenda (azken 10 urteetan):

- 16 aldiz Ipar Euskal Herriko txapeldun;
- 7 aldiz Frantziako txapeldun;
- 6 aldiz Euskal Batasuneko txapeldun;
- Elite profesionaleko pilotari bat (Pierre ETCHEVERRY);

Aktibitateen bilana

Funtzionamendua: Frédéric MARTINON eta Frédéric BEREAU bi presidente berrik zuzentzen dute gure kluba. Kluba entseatzen da bere ekintzak optimizatzea, batzorde bat baino gehiagotan –hala nola animazioa, babestea eta komunikazioa– banatuak diren kideen laguntzarekin.

2023ko lizentziadunen kopurua eta aktibitateak: 73 lizentziadunek (55 esku huskan eta 18 emazteen palan) eta 61 taldek parte hartzen dute txapelketetan. Gure kluba 80etarik 17. postuan sailkatzen da. 2023an, 27 talde heldu ziren gutienez final-laurdenetara, eta horrek erakusten du gure klubaren dinamismoa eta lehiakortasuna. Lurraldeko txapelketaren final-laurdenetara heltzeak Frantziako txapelketaren ateak zabaltzen dizkigu, gure kluba estatu mailan ordezkatzeko parada paregabea dena.



Entrenatzaileak eta laguntzaileak:

Gure entrenatzaile eta laguntzaileen taldea hamar boluntario suharrez osatua da. Funtsezkoa da gure pilotari gazteak trebatzeko. Biziki kontent gara kide berriak hartzeaz, hala nola Éric, Miren eta Nicolas. Entrenatzaile eta laguntzaileen taldean sartzeko urratsa egin duten pilotari gazteen burasoak dira hiruak. Interesa duten burasoak akuilatzen ditugu gure pilotari gazteen prestakuntzan gehiago parte hartzera. Gainera, ABARRATIAK bere zuzendarien artean bi boluntario izan ditu, Marie-Christine eta Frédéric, beren gaitasunen hobetzeko engaiamendua hartu dutenak, Frantziako Euskal Pilotaren Federazioak eman epaile-formakuntza segituz.

Gauzatu proiektuak: 2023an arrakasta handiz ospatu genuen gure 30. urtemuga. Bertze ekimen batzuk ere plantan ezarri genituen: kirol jantzien merkaturia, klubaren irudia zuten tixerten saltzea, klubaren ator berriaren sortzea, udako Front Ball txapelketa Aiherrako eskola publikoko frontoian eta Punpa Tiki Donoztiriko ezker paretan arraberrituan.

2024ko proiektuak

Heldu den urteko, gure herrien bizia animatzen segitzeko asmoa dugu, Punpa Tiki eta Front Ball txapelketa bezalako gertakariak antolatuz. Era berean, gure kluba indartzeko bertze gertakari batzuk antolatu nahi ditugu ere, pilotari ohiak erakarriz eta kide berriak hartuz. Adibidez, Izturitzeko trinketan pasaka jokoan hasteko ikastaldia proposatuko dugu. Gainera, prest gara Xoko txapelketa sostengatu eta txapelketaren final-etako partiden hartzeko. Bertze proiektu batzuk ere baditugu, hala nola pilotari profesionalekiko topaketak eta kirol-elkartearen barne mailako harremanak indartuko dituzten memento goxoen antolatzea.

Klubaren kide egin zaitez!

7 urte badituzu eta pilotari ari izaten ikasi nahi baduzu edo 77 urte arte badituzu eta gure kluba boluntario gisa lagundu nahi baduzu, ongi etorri beroa egingen dizugu.

Argibide gehiago behar baduzu, joan zaitez gure webgunera (abarratia.fr) edo idatz ezazu gure e-postara (pilotabarratia@gmail.com).

Gure bi presidentek:

Fredo Martinon: 06.72.24.04.77 / Fred Bereau 06.10.45.55.94

2023ko GERTAKARIAK

ARBEROAKO ORTZIRALEAK

2023an, Arberoako ortziraileen hirugarren edizioa antolatu zen. 2021az geroztik, udako animazioen dinamika sortu da Izturitze, Aiherra, Donoztiri eta Donamartiriko herrietan, herri bakoitzeko elkarten parte-hartzeari esker. Hala, uda osoan, herri bakoitzean, aste guzietan, animazio erregularrak antolatzen dira.

Arberoako ortziraileei esker, herritarrek eta bakantzatiarrak animazio horien kariatara elkartu ahal izan ziren. Hala, uztailan eta agorrilean, mutxikoak, pilota partidak, arroltze moleta lehiaketak, kantaldia, ibilaldia eta Abarratia gainean egin animazioak antolatu ziren, ortziraile guztien, elkarteek zerbitzatu erreki eta talo goxoen usainen artean.

Herriak eskerrak eman nahi dizkie udako gertakari horietan eta urte osoan herria sustatzeko gertakarietan parte hartu zuten elkarte guztiei.



PHILIPPE ALBORREN IKUSGARRIA

Herriko Etxeak, 2023aren hondarrean, herriko haur guziendako urrikako ikusgarria eta askaria eskaini zituen.

Abenduaren 9an, larunbatean, gure herriko hiruretan hogeita haur inguru, burasoekin eta ahaide hurbilekin, Philippe Alborren *T'inquiète je gère Noël !* ikusgarria ikustera joan ziren.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Lavoine jaun-andereei, karia horretara irudimenezko mundu zoragarri bat sortu zutelako.



HELBIDERATZEA: EGIN BEHARREKO URRATSAK

Oroitarazten dizugu zure solaskide guziei zure helbide berri zehatza helarazi behar diezula.

Hori egin ez dutenentzat, berriz diogu bakoitzaren egitekoa dela helbide berri zehatzaren helaraztea solaskide guziei: banketxea(k), mutualitatea(k), asurantzia etxea(k), enplegatzaila(k), Eritasun Asurantzaren Lehen mailako Kutxa (EALK), familien laguntza kutxa (FaLK), erretreta kutxa, energia-, telefono- eta Internet-hornitzailea(k), harpidetza(k) (kazetak, etab.). Hori egin ezean, baliteke paketeak eta gutunak ez gehiago errezibitzea.

“Changement d’adresse en ligne” (helbidez kanbiatzea linean) telezerbitzua ere erabil dezakezu, erakunde desberdinei aldi berean jakinarazteko ahala ematen baitu:

<https://psl.service-public.fr/mademarche/JeChangeDeCoordonnees/demarche?execution=e1s1>

IZPINDAR – EKINDAR

2024ko martxoan, SCIC EKINDARREN kide egitea onartuz, Herriko Etxeak erakutsi du desmartxa hori sostengatzen duela.

Autokontsumo kolektiboa praktika bat da, non pertsona fisiko edo juridiko batzuek tokian berean ekoitzi elektrizitatea partekatzen baitute, energia-iturri berriztagarrietan oinarrituz, hala nola panel fotovoltaikoetan.

Elektrizitatearen zirkuitu laburra da, nolazpait. Alde interesdun bakoitzak ekoiztako energiaren zati bat kontsumitzen du, eta horrek energiaren kostua apaltzen du eta energiaren erabilera iraunkorragoa sustatzen.

Izturitzeko herria sartu da SCIC EKINDARen, “elkargoak eta erakunde publikoak” multzoan. Tokiko energia berriztagarriaren horniduraz baliatzen ahalko da gure herria bere eraikinetako, 20 urtez, bidezko prezio kontrolatuan.

Tokiko ekoizpena eta ekoizpen ekologikoa: elektrizitate deskarbonatua sortzeko tokiko soluzioa, Herriko Etxeek, erakundeek eta herritarrek kontrolatua.

LANDARE HESIEN MANTENTZEKO ARAUDIA

D161-24. artikulua: Herriko bideetara buruz aitzinatzen diren zuhaitzen adar eta sustraiak moztu behar dira, jabeen edo laborarien ardurapean, pasabidearen segurtasuna eta erosotasuna zaintzeko eta bidea kontserbatzeko gisan. Landare hesiak edo heskaiak herriko bideen mugaraino joan daitezke. Tokiko bizitzaile jabeek manu hauek betetzen ez badituzte, Herriko Etxeak galdatu gabe egiten ahalko ditu xedarratze-obrak, haiek pagaturik, haiek horren egitera behartu eta emaitzarik izan ez bada.

TIGRE ELTXOA

Emeen erdiak 29 egun bizi dira 25 °C-tan eta 32 egun 30 °C-tan. Eltxo hori batez ere hiriguneetan garatzen da. Emeak erruten du ur geldí baten gainetik milimetro batzuk gorago dagoen eremu solidoen gainean, “etxe antropikoetan”, hots, gizakiak sortuetan, adibidez, liliotzietan, horien azpikoetan, gaizki hustu teilatu hodieetan, errota kautxu zaharretan, burdinazko edo plastikozko ontzi utzietan. Larba eta arren “etxe naturalak” ere koloniza ditzake, hala nola arroka-ziloak, zuhaitz-ziloak, euri bortitzen ondoko ur-putzuak. Tigre eltxoen kopuruaren emendioa geldiarazteko, garrantzitsua da ura geldí egon daitekeen leku guztiak hustea, dela bizitegien barnean, dela kanpoan.

LIZTOR ASIARRAREN KONTRAKO BORROKA-PLANA

Ipar Euskal Herrian, primaderako zepoan harrapatzeko operazioa, liztor asiarraren kontrako borrokaren funtsezko urratsa da. Lan honen helburua da liztor sortzaile emeek liztorren habiarik ez sortu ahal izatea eta, ondorioz, liztor asiarraren presioa murriztea udan eta larrazkenean.

Herriko Etxean Tap-Trap zepoak eskura ditzakezue, urrik. Oraindik zeporik ezarri ez dutenentzat, oraindik eskura ditzakezue, heldu den urteko primaderako.

Zepoan ezarri beharreko osagaien errezeta adibidea: 25 cl garagarno, 5 cl granadina edo andere-mahats ziropa.

ALOKATZEEN PREZIOAK

Denen Etxea	Isturiztarrak	Kanpokoak
- Egun erdia	200 €	400 €
- Egun osoa	350 €	700 €
- Gutenez 50 pertsonako taldea	200 €	400 €
“On Egin” kantina	100 €	200 €

TRINKETEA

Oren bat, argirik gabe, 18:00etatik goiti: 7 €

Oren bat, argiarekin, 18:00etatik goiti: 10 €

Larunbat goizean eta igandean 18:00ak arte, trinketea urririk da herritarrendako.

TRINKETEAREN IREKITZEKO

1. Deitu 06 67 90 19 88 zenbakira, kuxaren irekitzeko kode zenbakiaren eskuratzeko.

2. Jostatu trinketea.

3. Giltza bere tokian ezarri aitzin, segurtatu trinketeko atea ongi hetsia dela.

4. Aldatu kodea, giltza-kutxa blokatzeko.

Ekipamendu publikoaren ibilera onaren bermatzeko, denen ardura da trinketea ahal bezain egoera hoberenean mantentzea. Heltzean, galdutako zaizue trinketearen egoera ona kontrolatzea; kalteak agertuz gero, azken erabiltzailea izanen da eragin kalteen erantzulea. Trinketa erabiltzen duten haur adingabeen kasuan, burasoen erantzukizuna da protokoloak errespetatzea.

GUZTIENTZAKO GELA

Herriko elkarteek urririk baliatzen ahal dute, baina elkarte bakoitzak urtean gehienez 3 aldiz baliatzen ahal du. Laugarren alditik goiti, elkarteak 100 € pagatu beharko ditu gertakari bakoitzeko.

Herriko pertsona batek sala bi egunez baliatzen badu ezkontza baten ospatzeko, alokairuaren prezioa egun batekoa izanen da.

Kasu guzietan alokairu kontratu bat sinatuko da, **gertakaria baino hilabete bat lehenago**. Kontratuari barne araudia erantsiko zaio. Gelaren alokatzeko, Herriko Etxera joan behar duzu kontratua eta barne araudia sinatzeko eta berme txekoa uzteko.

Oharra: Besta Komiteak eta Herriko Etxeak jakinarazten dute mubleak (mahaiak + aulkiak) urririk prestatzen dituztela. Zerbitzu hau interesatzen bazaizu, jarri harremanetan Herriko Etxeko idazkariarekin. Hartu eta itzuliko diren bakoitzean, prestatze-erregistroa sinatu beharko da.

JOSTALEKUA

Eskolaldian:

Jostalekua ez daiteke erabil eskolako tenoreetan.

Jostalekua erabil daiteke asteburuetan.

Jostalekua erabil daiteke asteazkenetan, 14:00etatik goiti.

Jostalekua erabil daiteke astelehen, astearte, ortzegun eta ortziraletan, 17:00etatik goiti.

Eskola bakantzetan:

Aisialdi zentroak eraikina erabiltzen duelarik:

Jostalekua erabil daiteke egutegiaren arabera.

Aisialdi zentroak jostalekua arratsaldean erabiltzen duelarik, 18:30etik goiti jendeak erabil dezake.

Aisialdi zentroak ez duelarik jostalekua erabiltzen, jendeak erabil dezake.

Salbuespen gisa, debekatua izan daiteke jostalekua erabiltzea.

Denak goxoki sentitzeko eta denak errespetatzeko, jostalekua beti garbi utzi behar da. Horretarako, zikinontzi anitz daude denen eskura.

IDAZKARITZAREN ORDUTEGIA

	Goiza	Arratsaldea
Astelehena	8:00 – 12:30	
Asteartea	8:30 – 12:30	13:30 – 17:00
Asteazkena		
Ortzeguna	8:00 – 12:30	
Ortzirala	8:00 – 12:30	13:30 – 18:00

HERRIKO IKASLE LAGUNTZAK

Goi-mailako irakaskuntzan (baxotik goiti) izena eman duten ikasle guzietan zaie Herriko Etxeari lehenbailehen jakinaraz diezaiotela, ikasle laguntza bat eskura dezaten (lehen galdea egiteko, bankuko nortasun agiria eta eskolatze agiria eman behar dira). “Prépa” edo prestakuntza klasean izena eman duten ikasleek ere ikasle laguntza eskuratzen ahal dute, baina prestakuntzaren iraupenaren arabera.

Oharra: ikasle laguntza urte guztiaz ordainduko zaie, maiatzetik goiti, aitzineko ikasturte sartzean izena eman zuten ikasleei.

HERRIAREN LAGUNTZA AIGA DIPLOMAREN UKATEKO

Herriko Etxeak 2024ko otsailaren 3an deliberatu zuen Animatzaile Izateko Gaitasun Agiriaren (AIGA) kostuaren zati bat (200 €) finantzatzeko laguntzea, herrian bizi diren 16 urtez goitiko gazteentzat, familiaren zergapeko irabaziak edozein izan daitezkeen.

Interesa baduzu, jar zaitez harremanetan Herriko Etxeko idazkariarekin, eta dokumentu hauek aurkez itzazu:

- Formakuntzan izena eman izanaren agiria
- Bizilekuaren frogagiria
- Bankuko nortasun agiria



ERROLDA, “DEFENTSA ETA HERRITARTASUNA” EGUNA

Frantses herritartasuna duen orok, 16 urterekin, Herriko Etxeak errola dezan galdegin behar du. Baitezpadakoa da konkurtsoetara, etsamina publikoetara eta gidabaimenera aurkeztu ahal izateko.

HILERRIA

Bi hilobi libro dira. Interesa baduzu, jar zaitez harremanetan Herriko Etxearekin.

HILERRIKO LEKUEN EMATEA

Familiako hilobi baten jabea bazara, segurta zaitez jabego titulua baduzula; haurrei ematen ahalko diezu. Argibide gehiago nahi izanez gero, Herriko Etxeari galda.

WEBGUNEA / HERRIKO BERRIAK

Informazio hauek Internet bidez jaso nahi badituzue, igor zuen helbide elektronikoak:

isturits-com@outlook.fr

KOMERTZIO IBILTARIAK

Mutturfin Food Truck-ak, asteko menu bat eta anburgesak lur sagar frijituekin proposatzen ditu, lekuko mozkinaz hornituak. Bi asteartetik behin trinketeko aparkalekuan egoiten da, 18:45-etarik goiti.

HONDAKINEN BILKETA

Zer egin behar da ezagugailua galduz gero?

Jar zaitez harremanetan Euskal Hirigune Elkargoarekin, 05 59 57 11 80 telefono zenbakira deituz edo dechets.barnekalde@communaute-paysbasque.fr e-postara idatziz (ezagugailuaren prezioa: 5 €).

HONDAKINDEGIEN ORDUTEGIA

Hondakindegira joan behar da honako hondakinen botatzeko: trabagarriak, landare-hondakinak, egurra, burdineria, tresna elektrikoak, kartoi handiak edo hondakin arriskutsu edo kutsatzaileak (motor-olioak, olio-iragazkiak, disolbatzaileak, tindua, pilak, bateriak, etab).

Beskoitzeko hondakindegia

Astelehena: 14:00-18:00

Asteazkena, ortziralea eta larunbata: 09:00-12:00 - 14:00-18:00

Heletako hondakindegia

Asteartea eta ortzeguna: 14:00-18:00

Larunbata: 09:00-12:00 - 14:00-18:00

EURI-UREN BERRESKURATZEKO ONTZI BAT UKATEKO LAGUNTZA

Euskal Hirigune Elkargoak laguntzen ditu partikularak, enpresak eta elkarteak euri-uren berreskuratzeoko ontzi bat ukan dezaten. 2023ko uztailaren 1etik, erosi ekipamenduen erosketa- eta instalazio-kostuaren zati bat finantzatzen du, ekipamendu haien edukieraren arabera.

1.000 litro edo gutiago hartzeko gai diren ontzien kasuan, laguntza 50 eurokoa da. Hori baino gehiago hartzeko gai diren ontzien kasuan, laguntza eskuratzeko, bertze laguntza publiko bat eskuratzeko dela erakutsi beharko da; orduan, Euskal Elkargoak pagatu beharreko gainerakoaren % 50 ordainduko du, 1.500 euroraino.

Ohartarazten da laborari, baratzezain eta kabala hazleei ere laguntza eman dakiekela.

Eskaerak linean egin daitezke, urte osoan:

<https://www.communaute-paysbasque.fr/demande-daide-pour-lachat-dun-recupereur-deau-de-pluie>



AURKITEGIA

Herriko Etxea.....	05.59.29.62.84	mairie@isturitz.fr
Arberoan Alaiki.....	07.86.49.00.15	alsh@isturitz.fr
Le Petit Prince eskola publikoa.....	05.59.29.45.97	ce.0640918A@ac-bordeaux.fr
Gela eta trinketa alokatzeko.....	06.67.90.19.88	mairie@isturitz.fr
Pausa Lekua zahar etxea.....	05.59.70.27.00	aapava@orange.fr
Ura eta saneamendua.....	05.59.29.17.72	regie-eau-secteur4@communaute-paysbasque.fr
Etxe-hondakinak.....	05.59.57.11.80	dechets.barnekalde@communaute-paysbasque.fr
Mugikortasunen sindikatua.....	05.59.44.77.77	transportsscolaires@communaute-paysbasque.fr
Hazparnealdeko Lurralde Eremua..	05.59.29.16.47	contact@communaute-paysbasque.fr